

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

438

IRAGARKIA, 2021eko urtarrilaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkarieraren, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baina proiektu honen eraginen aitortzea: Bilboko, Sondikako eta Erandioko udal-mugarteetan «132 kV-ko Basauri-Gatika ZB aireko linea elektrikoa moldatzea 16 eta 33=34 euskarrien artean».

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkarieraren 2020ko otsailaren 19ko Ebazpenak instalazio hau baimendu, proiektua onartu eta onura publikoa deklaratu zuen: «132 kV-ko zirkuitu bikoitzeko Basauri-Gatika ZB linea elektrikoaren moldaketa 16 eta 33=34 euskarrien artean» eta haren adarrak Bilboko, Sondikako eta Erandioko udalerrietan (Bizkaia).

Eskatzaileak egiaztatu du hasierako eskaeran ez zegoela onartutako proiektuaren eraginpean dagoen finka bat desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrendan.

Horregatik, jendaurrean jartzen da eranskinetako informazioa, abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2002-12-23ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen dira instalazio hauek eraikitze, aldatze, ustiatze, eskualdatze eta ixteko administrazio-baimenerako prozedurak: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere–, eta honako hauetan xedatutakoarekin bat etorri: Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikulua (2013-12-26ko BOE) eta Goi-tentsioko lineei buruzko Arautegia eta haren jarraibide tekniko osagarriak (01etik 09ra bitarteko JTO-LAT) –otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuak onartutakoak (2008-03-19ko BOE).

Erreferentzia: L-8341 GHI/TLE.

Espedientea: 48-AT-I-2017-00019 (AT-H-1991-1004).

– Kokalekua: Bilboko, Sondikako eta Erandioko udal-mugarteetan.

– Aurrekontua: 1.171.913,54 euro.

– Xedea: bertan dagoen linea elektrikoa berritzea eta eguneratzea.

Jardueraren ezaugarri nagusiak:

Euskarriak aldatu edo indartu.

Eroalea, babes kablea, isolamendua eta beste elementu batzuk aldatu.

Ez dauden tokietan, babes kablea eta OPGWa eraiki.

Hori guztia Ivan Martín Cavia jaunaren proiektuan jasotakoaren arabera.

Onartu zen burutzapen-proiektuaren eraginak aitortzea eskatzen da.

Argitara ematen da hori guztia jendeak horren berri izan dezan, bereziki lursailen jabeek eta jarduerak ukitutako gainerako titularrek, zeinek dokumentazioa aztertu ahal izango baitute sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udalean edo url

honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Iragarki honen amaieran dago interesdunen zerrenda. Bidezko iritzitako alegazioak –bi kopia– ordezkartzan aurkeztu beharko dira, 30 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2021eko urtarrilaren 4a.

Lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

2021eko urtarrilaren 27a, asteazkena

ERANSKINA

132 KV-KO BASAURI-GATIKA ZB, AIREKO LINEA ELEKTRIKOA MOLDATZE A16 ETA 33=34' EUSKARRIEN ARTEAN.

ESP. 48-AT-I-2017-00019 (L-8341)

ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

Udalerria	Finka	Katastroko datuak		Titularra	Afektazioa								Izaera	
		Poligonoa	Lurzatia		Linearen luzera (m)	Jatorrizko azalera (m ²)	Azalera handitzea (m ²)	Behi -betiko azalera (m ²)	BMH (m ²)	Euskarri-zenbakia	Errepidearen bionda (m)	Lurrak (m ²)		Aldi baterako Okupazioa (m ²). Sarbideak eta eraikinak
Bilbao	127	3	639	González Diez, María Carmen	44,71	852,2	0	793,09	0	Ap.19 cto. 1	28	50,56	400	belardia